

EUSKALTZAINDIAREN BULEGO BERRIAK BILBON

Bizkaiko Diputazio Jauregian, 1978-XII-29

Euskaltzainburuaren hitzak:

Amorrortu jaun, Bizkaiko Diputazioaren Lehendakari agurgarri horri:

Ondo gogan dut non eta noiz izan zen. Durangoko Liburu azokan Euskararen Liburu Zuriaren aurkezpena ospatu zen egunean. San Blas jatetxean elkarrekin afaldu genuen, eta afal bitartean erregu bat egin nizun: Euskaltzaindia bulego edo toki berri baten premian zegoela Bilbon, Ribera kaleko etxe hura meharregia bihurtu zela Euskaltzaindiak ezagutu duen hazkundearentzat. Beste aldetik, lau euskal Diputazioen sorkaria izanik Euskaltzaindia, bidezkoa zela Diputazioaren etxean bertan guk bulego hori edukitzea. Era hortara Diputazioarekin ditugun lokarri eta loturak sendotu baizik ez zirela egingo.

Eta zuk ederki baino ederkiago erantzun diozu gure eskariari. Gau Euskaltzaindiak bere bulego berriaren estreinaldia egiteko eta zuri gure eskerrona agertzeko, Bizkaiko Diputazioaren etxe honetan egin nahi izan du batzarre hau. Ez dugu ahaztutzen Bizkaiko Diputaziotik irten zela Euskaltzaindi hau sortzeko lehen asmoa edo inizatiba. Eta orai ere, ahal dela, lau probintzietako Ordezkaritzek lau Diputazioen etxean egotea nahi dugu euskararen aldeko gure lana zuen babespean hobeki egin ahal izateko.

Eta gure amets hau, Bizkaiari dagokion aldetik, zuri eskerrak, egia bihurturik ikusten dugu.

Eskerrik asko, bada, jauna.

AMORRORTU JAUNARI ESKER-DIPLOMA EMATEAN

Bilboko bulego berrietan, 1979, martxoak 16

Francisco Amorrortu jauna:

Euskaltzaindia Euskal Herriko lau Diputazioek sortua da. Ezin hautsizko lokarriak ditu, beraz, Diputazio horiekin. Gu orai ere horretan gaude. Diputazioen itzalpean egin nahi dugu geure lana.

Bizkaiko Diputazioak eman dizkigun bulego berri eta eder hauekin lotura horiek sendotu besterik ez dira egingo. Eraitza honengatik Euskaltzaindiak bere esker ona agertu nahi dio Bizkaiko Diputazioari. Eta zu, Amorrortu jauna, Diputazioko buru zarela gertatu baita bulego berrien emate hau, guk ere geure esker onaren agergarritzat oroikailu xume hau eman nahi izan dizugu eta ematen dizugu bihotz-bihotzez. Eskerrik asko! Fr. Luis Villasante.